



**3 GIZARTEA**  
**Oinatz taldea**  
**Lasturko harana**  
**ezagutzen**

Oinatz taldeko lagunek maiatzaren 18an, Lasturko haranera txangoa antolatu dute. Familiak joateko plan aproposa antolatu du taldeak. Goizean haranean dauden urkanalen ondotik dagoen bideetik ibilbidea egingo dute eta arratsaldean berri, lurraldeko produktuko nola egiten diren ikusiko dute, hala nola, irin errota, gaztandegi eta ehundegi bat bisitatuko dituzte.

**5 GIZARTEA**  
**Xirimiri elkartearen**  
**25. urteurrenean**  
**ekintza ugari**

Lasarte-Oriako Xirimiri elkarteak 25 urte betetzen ditu aurtten. Hau ospatzeko hamaika ekitaldi antolatu ditu maiatzaren zehar, hitzaldiak, tailerrak, mendia iteera... Hala ere, ospakizun egun handia maiatzaren 24a izango da. Honetan, futbito partida, eskualdeko herri kirolen proba mixtoa, bazkari herrikoa eta ordu txikiak arte KWBD, UK BILL, AFU, Tajon Prieto y Los Kuajolotes taldeen kontzertuak izango dira.



# Animalien ordenantza prest

Txakurrak hezteko jardunaldiak antolatu ditu Udalak



Nerea Sanchez Ingurumen departamentuko burua, Manuel Villar etologoa eta Iñaki Goya txakur hezitzailea atzo goizean egindako aurkezpenean.

Atzo eguerdian, maiatza amaieran indarrean jarritako animalien ordenantza berria azaldu zuen Udalak. Honetaz gain, maiatzetik azarora egingo diren "Jakin beharrekoa txakurra eduki aurretik" jardunaldiak ere aurkeztu zituzten.

Lasarte-Oriako Ingurumen saileko buruak Nerea Sanchezek atzo eguerdian eskainitako prentsaurrekoan, Animaliak Babesteari eta Edukitzeari buruzko Ordenantza Muzipala hilabete amaieran indarrean jarriko dela jakitera eman zuen.

"Gaur argitaratu da GAOn eta maiatzaren 27an indarrean jarriko da", aipatu zuen Sanchezek.

Hau dela eta, Lasarte-Oriako etxeetara iritsiko den eskuorria aurkeztu zuen zinegotziak. Honetan, Ordenantza berriaren hainbat puntu

azaltzen dira eta txakurrak pasiatzeko erabili daitezkeen gune ezberdinen plano bat ere agertzen da.

Bertan ordutegiaren arabera bereizitako lau eremu aurki daitezke. Batetik 24 orduetan aske ibili daitezkeenak, bestetik jabearen ardurapean 18:00etatik 11:00etara aske ibili daitezkeenak, Askatasunaren parkea udan 23:00etatik 10:00etara eta neguan 21:00etatik 10:00etara erabli ahalko da eta belargunear sartu ezin diren hiru eremu daude Parke Botanikoa, Atsokabar parkea eta Tximistarreta parkea.

Hauek Udalak martxan jarritako partehartze prozesuan erabakitako guneak direla azpimarratu zuen Ingurumen saileko buruak, "elkarbizitza egokia bilatze aldera".

**Jardunaldiak**

Era berean, bilera hauetan txakurrek sortu ditzaketen arazoak konpontzeko jardunaldiak ere eskatu zituzten herritarrek.

Eskaera horri erantzunez, "Más etología aplicada" taldeko kideekin batera antolatutako "Jakin beharrekoa txakurra eduki aurretik" jardunaldiak ere aurkeztu zituen agerraldian.

Manuel Villar elkarte etologoa azaldu zuen legez, maiatza eta azarora artean egingo diren sei saio teoriko eta bi praktiko izango dira.

Teorikoak Manuel Lekuonan izango dira 19:00etatik aurrera. Hauetan txakurren hazkuntza, hezkuntza metodoak azaldu eta batez ere, herritarrek izan ditzaketen arazoak konpontzen saiatuko dira.

Lehen saioan, maiatzaren 14an, hizlarien aurkezpena eta solasaldia egingo dute eta jendearen kezak entzungo dituzte. Saio hau irekia izango da.

Gainontzeko saioetan parte hartzeko izena eman behar dela azpimarratu zuen Nerea Sanchezek.

Horretarako bi modu izango dira, bata udaletxe berriko 4. solairuan, 9:00etatik 13:30etara eta bestea posta elektronikoko bidez, [ingurumena@lasarte-oria.org](mailto:ingurumena@lasarte-oria.org). Mezuan herritarren izena abizena, NAN eta telefono zenbakia eta txakurren arraza zehaztu beharko dira.



IEFPS USURBIL GLHBI



**Ate irekiak maiatzaren 10ean eta 17an (larunbatak)**

Goi-mailako  
 Erdi-mailako  
**HEZIKETA**  
**ZIKLOAK**



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: [eskola@lhusurbil.com](mailto:eskola@lhusurbil.com)

Neure kabuz



Jone M. Hernandez

Beste ikasturte bat

Ikasturtearen amaiera bistan dago. Jada atzerako kontaketa hasi da. Nagusienak (unibertsitatean edota batxilergoan daudenak) lehenik, eta txikiagoek ondoren: denek beste urrats bat burutuko dute euren hezkuntza ibilbidean datozen asteetan. Pentsatzen jarrita hezkuntza prozesu honek badu puntu harrigarri bat, berez konplexutasunez beteriko eremua delako: ume, gazte eta familia pila dantzan, milaka irakasle. Egitasmo, inprimaki eta burokrazia amaitu gabea. Ikastetxe handiak, ertainak eta txikiak, kokapen eta izaera ezberdina dutenak. Bakoi-tzean hamaika gela, guztiak bakarrak eta bereziak, batzuk zailak kudeatzeko, beste batzuk erraza-goak. Makina bat ahalegin ikasle, irakasle zein gurasoen aldetik, batzuetan norabide berdinean, besteetan adostasun batera iritsi ezinean. Jolas garaia. Haserreak, barreak. Eguneroko eteko lanak, orduak ordenagailu aurrean, liburu tartean, etxean zein liburutegietan. Azterketak: egunak presatzen eta egunak zuzentzen. Notak eta txostenak. Tristura eta poza. Txangoak, jaialdiak eta agurra.

Oporrak. Hurrengo ikasterterta arte.

Eta horrela doa aurrera eskola, bizitzan oinarritzekoak diren beste-lako gauzak bezala, zalapartarik gabe, egunkarietako tituluetan agertu gabe, kurtsu bakoitzean zehar gertatzen den guztiak mirari baten itxura izango ez balu bezala. Gure gizarteak agintzen duenaren arabera gauza harrigarriak bizitzatik kanpo gertatzen dira gehienetan: azken segundoen sartutako gola, esate baterako.

Batzuetan fokoa itzala sordezan pizten da: gertuko lorpen garrantzitsuak itzaltzen dituzte urrutiko distirek.

Zorion agurrak



Nora eta Iker

Zorionak bikote! Muxu potolo asko aitaxo, amatxo eta familiaren partetik.




Eneritz

Zorionak Politta Hamairu muxu Eñaut eta familian partez!!!



Aiora

Zorionak BITXITO zure 7. urtebetetzean, txokolatzeko muxuak, famili guztiaren partetik.



Igor

Zorionak pottoko, 6 urte egitean. Egun on bat pasa guraso eta familiaren partetik. Muxu potolo bat.



Elene

Zorionak printzesa!!! Lau muxu handi Garazi, Aizpea eta gurasoen partetik. Ondo pasa!!!



Ekaitz

Zorionak bitxito eta hiru muxu pottolo. Amañur, amona, aitaxo eta amatxoren partetik.




Aimar

Zorionak txapeldun!!!! Oso ondo pasa zure 7. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.




Ibai

Zorionak eta sei muxu handi familia guztiaren partetik!!!!



Koan

Esku bete urte egin dituzu! Zorionak ama, aita eta Ambarren partetik.



Nora

Zorionak zure lehen urtebetetzean familia guztiaren partetik!! Muxu handi bat!!!



Nahia

Zorionak printzesa. Zortzi muxu potolo. Maialen eta aitaxoren partetik. Zure eguna ondo pasa izana espero dugu.



Aitor

Zorionak eta zortzi muxu aitona Alfredo eta amona Pepiren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Bi garaje itxi saltzen dira erdigunean. 647929533 Virginia
- Logela alokatzen da pertsona bat edo birenzat Usurbilen. Prezio interesgarria. 657535299
- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. Tel.: 607 491 663, Ariz.

Salerosketak

- Motoa Salgai Honda CBF 600S Urtea 2004 Prezioa: 3.400 euro. 630 032 779

Lan-eskaintza

- Emakume bat behar da pertsona heldua zaindu eta etxeko lanetarako. Egunean 4 ordu, gosaria, bazkaria eta afaria emateko. Astelehentik larunbatera eta kotxea behar du. Kontratuarekin. Tel.: 615 734 794.

Lan-eskaria

- Interna bezala lan egiteko emakumea prest. Arcadia 689376746
- Garraiolaria edo biltegizain lanak egiteko gizona prest. 657535299
- Neska lan egiteko prest. Haur edo pertsona

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Clara eta Diana Iruretagoyena Puertas, maiatzaren 5ean.
- Naiara Palomar Hinojo, maiatzaren 5ean.
- Alan Arroyo Bizarro, maiatzaren 4an.
- Unax Sanchez Fuentes, apirilaren 26an.
- Maider Egizabal Begiristain, apirilaren 23an.

Heriotzak

- Jose Aguirre Ugalde, apirilaren 29, 84 urte zituela.
- Jesus Garcia Torrientes, apirilaren 28an, 76 urte zituela.
- Juan Bautista Bernaras Altuna, apirilaren 27an, 86 urte zituela.
- Joaquin Olanó Balda, apirilaren 27an, 66 urte zituela.
- Joseph Angel Chevez Solorzano, apirilaren 27an, 5 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 09 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Larunbata, 10 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 11 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 12 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteartea, 13 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
- Asteazkena, 14 Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Osteguna, 15 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani. Tel.: 943 336 077

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Ezzagire, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Amuti, Aser Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

OINATZ TALDEA

# Lastur harana ezagutzen

*Errota, gaztandegi eta ehundegia bisitatuko dituzte*

Oinatz taldeak oraingoan Debabarrena aldera egingo du bisita maiatzaren 18an, Lasturko haranera, hain zuzen ere. familientzako egoki den txangoa antolatu dute gainera. Taldeak goizean mendi ibilbide motza egingo du ur-garraio ondoetatik eta haranean dauden errota, gaztandegi eta ehundegi bat ikusiko dituzte.



Lastur haraneko errota martxan daude eta horietako bat ezagutuko dute Oinatzeko lagunek.

TXINTXARRI

**H**aurrekin gozatzeko irteera prestatu du oraingoan Oinatz taldeak, maiatzaren 18rako. Debabarrenan Lasturko harana eta garai bateko errota edo gazta eta artilezko produktuak nola egiten diren ezagutu ahaliko dute haur, zein helduek.

Goizeko 09:00etan Sagardotegi kaletik atera eta Lasturko bailarara egingo du taldeak.

Debako udalerrian kokaturik dago Lasturko bailara, eskual kostaldeko Geoparkaren erdi-erdian.

Bailararen hondoa Lasturko errekaetara zeharkatzen du eta ur-garraioetatik zehar ibilbideak daude.

Honetaz baliatuz, Oinatzeko lagunek aterpetzeko

kideen eskutik, 5 kilometrotako ibilbidea egingo dute kanaletan barrena.

## Bisitak

Bazkal ostean, haranean dagoen errota eta Goikola baserriko gaztandegi eta ehundegia bisitatuko dituzte.

Lasturko errota egotzaren onean daude. Beraz, taldeak irina nola ekoizten den ikusiko du.

Ostean, Goikola baserria hurbilduko dira. Honetan jardueraren nagusia Idiazabal jatorri-deiturako ardi-gaztaren artisau elaborazioa da.

Gaztandegia eta elaborazio prozesua ikusi eta gazta dastatu ahal izango dute irteerara doazen herritarrek.

Honetaz gain, baserriaren ondoko ehundegi txikia ere

bisitatuko dute. Bertan, baserriko ardiak eraldatzen dute: txarrantzatzea, irutea, tindaketa naturalak eta goi eta behe irazki-harizko ehundegia.

## Izena ematea

Oinatzeko lagunek azaldu dutenez, errota, gaztandegi eta ehundegiko sarrerak bertan ordainduko dira, 6 euro eta izena emateko orduan autobusa bakarrik ordainduko da, 10 euro.

Talde txikia apuntatuz gero, kotxeetan antolatuko litzateke joan-etorria.

Bazkariari dagokionez, bakoitzak bere jana eraman beharko du.

Txangoan izena ematea Ttakunen egin behar da. Epea maiatzaren 16an itxiko da.

ETXERAT

## "Pilotakadaz Pilotakada" Loidi-Barrenen

Etixeratek "Pilotakadaz pilotakada" ekimena antolatu du. Helburua presoaren sakabanaketaren kontra maiatzaren 10ean frontoiak betetzea da.

Lasarte-Orian bihar 9:00etatik aurrera Loidi-Barrenen egingo da ekimena. Eskuz banaka, binaka eta pala txapelketetan parte hartzeko aukera izango da eta haur eta gazte-txontzat jokoak ere egongo dira.

Bestalde, Ibon Fernandez Iradi herriko presoaren zigorra eteteke eskaera maiatzaren 12an aztertuko du epaileak. Hori dela eta, bihar, maiatzak 10, 11:00etan presoari elkartzatuna adierazteko giza katea antolatu da Baionan Herriko Etxetik suprefeturara.

SANTA ANA

## Santa Ana azokarako postu eskaera

Sendoki Kultur Elkarte eta Lasarte-Oriako Udaleko Kultura Departamentuak urtero legez, XXX. Santa Ana Eskulangintzako Azoka antolatuko dute uztailaren 20an Okendo Plazan.

Urteurrena ospatzen den honetan, azoka antolatzen duen batzordeak herriko eskulagile guztiei dei egiten die Santa Ana Eskulangintzako Azokan postu bat eska dezaten, hartara beren artisau-lanak saltzeko modua izan dezaten.

Azokan postua eskatu nahi bada, maiatzaren 23a baino lehen jarri behar da harremanetan, [santanazoka@gmail.com](mailto:santanazoka@gmail.com) helbide elektronikora mezua bidalita. Baldintzei buruzko azalpenak banan-banan eskainiko dira.

IKASTAROA

## Janari-manipulatuzaile ikastaro berria

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren osasun sailarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaile ikastaro berria eskainiko du.

Ostalaritzako sektoreari zuzendutako ikastaroa da eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukia ditu.

Ikastaroa maiatzaren 19an emango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Ordutegia 09:30etik 13:30era bitartekoa izango da. Prezioa pertsonako 45 euro dira, eta langabetuentzako prezio berezia dago, 35 euro.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303 telefonoetara.

ERAKUSKETA

## Pilar Soberonen lanak maiatzaren 18ra arte Kutxa Boulevard aretoan

Pilar Soberon artista lasarteoiratarraren Dissolutio erakusketa Kutxa Boulevard aretoan dago ikusgai. Erakusketaz gozatzeko azken aukera apirilaren 27a bazen ere, honen arrakasta ikusirik amaiera epea aldatu eta beste hiru astez, maiatzaren 18ra arte mantendu dute.

Dissolutio erakusketan argazkiak, instalazioak, bideo-sorkuntzak, marrazkiak eta soinuak nahasten dira. "Gizabanakoengan erreakzioak pizteko sortu dira, baita erakusketa-eremuaren mugetan barrena esploratzeko ere," azaltzen du artistak.

Lanak komunikazio-bide berrietarako esperimientuetako probetak dira erakusketa honetan. Horregatik azken emaitza alde batera utzi eta ikuslearen parte-hartzea eskatzen du herriko artistak, hau "funtsezkotzat" jotzen du eta.

Erakusketaz gozatzeko asteartetik igandera, 17:00etatik 21:00etara hurbildu daiteke Kutxa Boulevard aretora. Sarrera doakoa da.

EUSKARA

## Langabetuentzako euskara klaseak

Munnteri AEK euskaltegiak jakin arazten du, langabetuei zuzendutako beheko mailako, A1.1, ikastaro berria martxan jarriko duela.

Maiatzaren 14an hasi eta ekainaren 19an amaituko da ikastaroa. Saiok asteleheneetik ostegunera izango dira eta 3 ostiraletan ere kurtsoa izango da.

Ikastaroak 10 euroko kostua du Lasarte-Oriako Udalaren dirulaguntza du eta. Izena ematea edo informazio gehiago eskuratu nahiez gero, Munnteri AEK euskaltegiara jo behar dute interesatuek.

# Ekologiaren garrantzia ulertzen

**H**erritar ugari bildu da asteleheneetik asteazkenera Manuel Lekuona kultur-etxeak hitzaldi aretoan. Arrazoai, Balioetan Hezi jardunaldiak.

Aurten hiru adituren eskutik ekologia eta giza balioak uztartu dituzte. Helburuak Xabier Andonegi hitzaldien koordinatzaileak aipatu legez, gizakiok eta beste izaki guztiak sistema berean orekan bizi behar dugula eta gizarte osoaren antolamendu parekatu eta garapen jasagarria moldatu behar dela ulertaraztea.

## Hitzaldiak

Era honetara, hiru gai desberdin lotu ziren ekologiarekin, batetik natura edo ekosistema, bestetik gizartea eta azkenik, giza balioak.

Astelehenean Xabier Murua Urnietako parroko, Erlujio Zientzien Goi Mailako



Herritar ugari hurbildu da Balioetan Hezi jardunaldietara.

Instituko irakasle eta ingeniariak besteak beste, munduaren sorrera azaldu eta ekosistemei eta hauen garrantziari buruz mintzo zen.

Asteartean, gure gizartea eta ekologiaren arteko loturaz hitz egin zuen Rai Mendiburuk, Aranzadi elkartearen dinamizatzaile eta ingurumen hezitzaileak.

Azken saioan, aldiz, Unai Oñaderra Manu Robles Aragoiz elkartearen ingeniari eta kidea ekologiaren krisiaren mintzatu zen.

Gizakiak bere esku egin ahal duena kontuan izanik, gaur egungo ekologia sistema krisian dagoela eta beste eredu bat bilatu beharko litzatekeela azaldu zuen.

# Gaztelekuaren lehenengo urteaz harro

Datozen asteetan txartel bidezko sarrera elektronikoa jarriko da

**Asteazkenean Taxio Arrizabalaga zinegotziak Gaztelekuaren lehenengo urtearen balorazioa egin zuen eta honen hitzetan oso positiboa izan da egindako bidea. Bereziki aipatu zituen gela desberdinentan elkartzen diren herriko 19 taldeak. Ordutegitik kanpoko erabilera eskaintzeko, datozen asteetan txartel bidezko sarrera elektronikoa jarriko da martxan.**

MAIDER AZURMENDI

Asteazkenean Taxio Arrizabalagak Gaztelekuaren lehenengo urteaz balorazio positiboa egin zuen. Gazteei baliabideak eman zaizkie eta hauek zerbitzu ezberdinez baliatzen ari direla azpimarratu zuen. Baliabide horietako bat dira entsegu gelak eta hauetan 19 talde aritzen dira.


Lasarte-Oriako autodromoa musika munduan erreferente izan zen 80. hamarkadan. Nazioartean ezagunak ziren abeslari eta taldeek jo zuten bertan. Mari Wilson abeslari ingelesa izan zen Autodromoan egon zen izar horietako bat. Orain Gaztelekuan kokatu dute Marivi Ibarrolak kontzertu hartan egindako argazkietako bat.

Sarreran tamaina handian jarri dute Autodromoko irudia eta Taxio Arrizabalaga zinegotziak azaldu du zergatia.

"Gaztelekuan egun 19 talde ari dira entsaiatzen, hau nahi dugu izatea talde berrientzat erreferente". AOD, DYPA, Radio Nowhere, The Garax, La huerta del punk, A human disaster, Son Kandela, Strummer band, Electronic gallery, Obito, Without me, Psikoacoustic, Hogeie minutu, Zokormazo eta partikular moduan izena eman duten beste hainbat ari direla esan zuen.

## Sarrera elektronikoa

Gaztelekuko entsegu gelak pixkanaka betetzen joan dira. "Oztopo bat izan da talde askorentzat Gaztelekuaren ordutegia. Orain artean ordutegi mugatua izan du eta bertako erabiltzaileak gazte informazio bulegoaren erabiltzaile modutan behar izan dira. Ahalguz egin da taldeen artean ordutegiak ahalik eta hoberen banatzen, laster ordea ez dugu halako arazorik izango".



Marivi Ibarrolak egindako argazkia jarri da Gaztelekuaren sarreran.

Arrizabalagak azaldu du datozen asteetan "Gaztelekura sartzeko txartel bidezko sarrera elektronikoa jarriko dela martxan eta erabiltzaile guztiek izango dutela aste osoan zehar nahi dutenean sartzeko aukera".

Horretaz gain, Gaztelekua pixkanaka proiektu ezberdinez eta edukiz bete dela esan du Taxio Arrizabalagak. "Proiektuaren helburua hasieratik gune berria hau gure Udalerriko gazteei beraien asmoetarako baliabideak eta aisialdi nahiz aholkularitza

zerbitzu ezberdinak eskainiko dizkien erreferente bat bihurtzea izan da".

## Erronkak

Nerabeentzako zerbitzu berria jartzea izango da erronka nagusietako bat. Hurrengo ikasturtean martxan jarriko da eta nerabeen ezaugarri, interes eta beharrei erreparatuta, horiengan eragiteko helburua izango du. Neska mutilen ingurune hurbilenean aurki ezin ditzaizkaten aukerak bilatzen lagunduko die eta bizitzan aurkituko dituzten arriskuz

egoeri autonomoki erantzun ahal izateko baliabideak eskaintzea bilatuko du besteak beste.

Sexologia zerbitzua izango da beste berrikuntza. Emakumeen zentroan dagoeneko martxan dago sexu aholkularitza bulegoa. "Asmoa honen funtzionamendua mugikorra izatea da zerbitzua ahalik eta herritar gehienei eman ahal izateko". Horregatik, ostegunetan 18:00etatik 20:00etara, sexu aholkularitza bulegoa Gaztelekuan egongo da.

## Euskal selekzioen alde

Euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren inguruko mozioa aurkeztuko du EAJk Udaltzarrean.

Udalari babes eskatuko dio euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren alde.

Bestalde, euskal federazioak animatzea nazioarteko ofizialtasuna lortzeko bide juridikoak aztertzea eta agortzea, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Kirol Federazioen laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Kirol Federazioek euskal kirol federatua ordezkatzearen bidegarritasun juridikoari buruzko txostena egitea eskatu zuen. "Honen arabera, ez dago eragozpen juridikorik Estaturik gabeko nazio edo lurraldeetako federazioek nazioarteko federazioen parte izan daitezkeen eta lehiaketa ofizialetan parte har dezaten. Kontua ez dago, beraz, ezintasun juridikoan, baizik eta borondatean".

## PSE-EEK enplegu plan bat eskatzen du

Jesus Zaballos PSE-EEK bozeramaleak udal gobernuari eskatzen dio berehala tokiko enplegu plan bat garatzeko.

Sozialisten esanetan "langabezia tasa herrian kezagarria izaten jarraitzen du eta udal gobernuak ez du ezer egiten, ez du neurri zehatzik hartzen hau arintzeko". "Lasarte-Oriako familia asko dira gizarte laguntzei esker edota senideek, Caritasek edo

elikagaien bankuak eskaintzen dien laguntzari esker bizi direnak".

Egoera zein den jakinda, "PSE-EEK gogoratu nahi dio udal gobernuari aurrekontuen eztabaidan, alderdi sozialistak zuzenketa bat aurkeztu zuela 12.000 euroko partida bat gorde eta enplegua eta tokiko garapen ekonomikorako plana egin zezan. Hau onartu egin zen Bildu eta LOHPek kontra bozkatu arren".

Gorka Lizarragari eskatzen diote plan honen lanketan hastera "nahiz eta Bildu honen aldeko ez izan".

Sozialisten ustetan "Udalak jarrera aktiboa izan eta enplegua garatzeko plana martxan jarri behar du. Posible diren neurriak hartzea eskatzen diogu udal gobernuari langabezia dauden pertsonak laguntzeko, ekonomia berrakibatua eta kritik beneratua artea bat eskaintzeko".

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Solomoa baratxuritan

Baserri pate



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

# 25. urteurrena ospatzeko hamaika ekimen

Xirimiri elkarteak ekintza egitaraua antolatu du 25. urteurrenean

Xirimiriko kideek elkartearen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintza egitaraua aurkeztu zuten astelehenean. Ostiraletik aurrera, zinema, musika, mintegi bat, munduko arrozen ikastaroa, bazkari herrikoia eta beste hainbat ekimen izango dira. Herritarrek hauetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

## TXINTXARRI

Xirimiriko kideek elkartearen 25. urteurrena ospatzeko prestatutako ekintza egitaraua aurkeztu zuten astelehenean.

Honen baitan mota guztietako ekimenak eman zituzten jakitera. Nabarmendu nahi izan zuten egitarau honen baitako ekintza izan zela herriko pailazoen Manuel Lekuonan apirilaren 26an eskaintako ikuskizunak.

Horrela, ostiralean, maiatzak 9, 22:00etan, eta maiatzak 11 igandea 19:30ean, Quai D'Orsay filma ikusi ahal izango da kultur etxean Okeno Zinema Taldearen eskutik.

Maiatzaren 10ean eta 17an berriz, "Herri jantzia, garaipenaren hazia" formazio mintegiak egingo dira Elebeltzen, Askapena brigadek gidatuta.

Maiatzaren 15ean, 20:00etan, "Munduko Arrozak" gastronomia tailerra burutu ahal izango da Xirimirin bertan, Banaiz Bagara eta Ttakuneko solaskide taldearen eskutik.

Izen ematea [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) helbidean egin behar da edo elkartearen dagoen zerrendan, maiatzaren 12a baino lehen.

Maiatzaren 17an 8:30ean, mendi irteera antolatu da Xirimiritik Buruntzara. Ondoren, Gure Esku Dago ekimenera jaisteko asmoa dagoela azaldu zuten Xirimirikoek. 22:30ean, Txoni & JulenK Djen saioak izango dira Trumoi tabernan.

## Festa handia

Maiatzaren 23an ere, 22:30ean, Big Time Sound System Djak musika jarriko du llogi tabernan.

Egun bereziena ordea, maiatzaren 24a larunbata,

izango da. 10:00etan hasita egun osoko jaia egingo dute elkarteak kideek. Ordu horretan futbito partida antolatu da; 11:30ean, herri kirolak, eskualdeko proba mixtoan Aitzaga, Irunberri, Herria eta Xirimiri lehiatuko dira.

14:30ean, Okendon bertan bazkari herrikoia egingo da eta honetan heldu zein umeentzako menuak izango direla jakitera eman dute. Haurrek 14:00etan bazkalduko dute eta begiraleak egongo dira ondoren jolasean aritzeko.

Bazkaloste girotua izango da Mikel Karton eta bertso eskolako kideen eskutik eta egunari amaiera emateko, 22:30ean, KWBD, UK BILL, AFU, Tajon Prieto y Los Kua-jolotes taldeen kontzertuak izango dira.

Maiatzaren 25ean 11:30ean, marmitako txapelketa egingo da eta honetan parte hartzeko ere aurrez izena eman behar da Gure Etxea tabernan edo elkartearen jarri den zerrendan maiatzaren 21a baino lehen. 12:00etan, Xumelarekin kantujira egingo da eta 14:00etan, urteurren ospakizunari amaiera emango zaio.

Kamisetak atera dituzte Xirimirikoek eta hauek herriko hainbat tabernetan jarriko dituzte salgai 10 eurotan.

Ekintza ezberdinen antolaketa parte hartu dutenei eskerrak eman zizkieten eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatzen dituzte.

## Epaia zain

Bestalde, Xirimiri Herriko tabernan auzian dago eta epaiketa amaituta, epaiaren zain daude. Oraindik ezer ez dakitela esan zuten agerraldian eta elkartearen etorkizuna zein izango den ere ez dagoela argi.



Elkarteko hainbat kide batu ziren astelehenean urteurreneko ospakizunak iragartzeko.



GURE IKASLEEN AHOTAN



## "MUko irakaskuntza ikasketek espezializazio maila handiagoa dute"

**Jaione Guerra lasarteoriatarra Lehen Hezkuntzako Graduako 3. maila ikasten ari da, Atzerriko Hizkuntzako ibilbidean MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI).**

**Zergatik aukeratu zenituen Lehen Hezkuntzako ikasketak?**

Beti gustatu izan zaizkit haurrak eta nire etorkizunaren inguruan pentsatzen jartzean irakasle izatea aukeretako bat zen. Argi nuen hezkuntzarekin loturiko zerbaitek nahi nuela eta nahiko irekia izateaz gain, gauzak azaltzeko momentuan gaitasuna banuela iruditzen zitzaidanez, Lehen Hezkuntzako Gradua ikasketak egitea egokiena iruditzen zitzaidan.

**Zergatik HUHEZI-Mondragon Unibertsitatean?**

Batxilergoa bukatu ondoren, beti egon ohi zara zertxobait galduta eta Mondragon Unibertsitateaz oso komentario positiboak entzun nituen. Gainera, Lehen Hezkuntzako Gradua ikasketak egiteaz aparte, ingeleseko ibilbideetik biderratu nahi nuen nire formazioa. Orduan, irakaskuntza ikasketak aukera desberdinak aztertzen nituen eta Mondragon Unibertsitateak, beste batzuek ez bezala, graduorarte aurrera joan ahal espezialitateari tarte handiagoa eskain-

tzen zitzaiola jakin nuen. Formazio esanguratsuagoa jasoko nuela iruditzen zitzaidanez, MURA etortzea erabaki nuen.

**Nola baloratu zenituzke orain arteko esperientziak?**

Ikastetxe batera praktikak egitea joan zaren konturatzan zara errealitatea teoriatik oso urrun dagoela; izan ere, faktore askok eragiten dute ikastetxe baten egunerokotasunaren eta irudikatzen duzuna baino konplexuagoa da irakasle baten lana. Hala ere, egunak pasa ahala, bertako irakasleak zure egunerokotasunaren parte bihurtzen dira eta, zure lana eskertzen dutenean, indarberrituta sentitzen zara.

**Zelan definituko zenuke hezkuntza ereduak?**

Hizkuntza eta edukiak ez dira modu isolatuan lantzen eta materia guztietan arlo desberdinei dagokion hiztegia eskuratzeko aukera dugu, hizkuntza materia guztietan zeharka lantzen dugularik modu batera ala bestera. Aitzi-



tik, diziplina arteko planteamendu batean oinarritzen da eta horrek jakintza-alor antizen arteko harremana sustatzen du. Honetaz gain, Unibertsitatean bakarkako edo taldekako hausnarketak eta lanak egiten ditugu, ikaskide guztien parte-hartzea bultzatuz eta denon iritziak entzuteko aukera dagoelarik. Gainera, aurreko ideiar lotuta, ikasgelan 30 ikasle inguru egoteak elkar ezagutzea ahalbideratzen duela esan daiteke eta horrek ere interakzio desberdinak egotea bultzatzen du.

**Gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?**

Ikasten jarraituko dut. Gaur egun lan munduan dagoen egoera ikusita eta, gazteak garestu kontuan hartuta, orain da gure ezagutzak aberasteko momentu egokiena. Bestetik, ingeleseko irakasle izateko formatzen ari naizenez, ingelesari tarte handia eskainiko diodala ere garbi daukat.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Elkarteko ekintzak iragartzeko prestatutako kartela.



## Agenda

Gaur, ostirala 09, 19:30ean, Ama Brigitarren komentua



### Euskal doinuez gozatzeko parada

Danok Kide elkarteak antolatutako IX. Musika topaketen barruan, Tolosako Hodeiertz abesbatzaren emanaldia. Euskal doinu eta konposagileen lanak nagusi izango dira izen handiko abesbatzaren kontzertuan. Hala nola, Bello-Porturen Une vieille chanson d'amour, Escudero moldatutako Izar ederra edo Javier Bustok landutako Nerea izango zen doinu ezagunak entzun ahaliko dira.

mazio mintegiak egingo dira, Askapenaren eskutik.

**XIRIMIRI ELKARTEA**

**Osteguna 15, 20:00etan**

"Munduko Arrozak" gastronomia tailerra burutuko da, Banaiz Bagara eta Ttakuneko Solaskide taldearen eskutik. Izen ematea [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) helbidean egin behar da edo elkartearen dagoen zerrandan, maiatzaren 12a baino lehen.

### Bakarrizketa

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**

**Larunbata 10, 00:00etan**

Miki Dkai-ren umorezko bakarrizketa gozatzeko aukera, "Encomendados" emanaldien barruan.

### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Maiatzaren amaiera arte**

Bizker-eko Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 09, 22:00etan**

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Quay D'Orsay" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 11, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Las aventura



de Peabody y Sherman" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 11, 19:30ean**

Helduentzako zinea, "Quay D'Orsay" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

### Musika

**ZULO ARETOA**

**Ostirala 09, 22:00etan**

Javier Krahe kantautorearen kontzertua.



Sarrera, aurretik, 13 euro; leihatilan, 16 euro.

**Ostirala 09, 23:55etan**

Dj Cara B eta Ruger Jon Dj-en emanaldia.

**ELEBELTZ TOPAGUNEA**

**Larunbata 10, 22:00etan**

DEspervicio, Hurto, Milaka Kolore, Jokin Skywalker, Txuki eta Amatxo Maitia Saund System taldeekin jaialdia.

### Xirimiri 25. urteurrena

**ELEBELTZ TOPAGUNEA**

**Larunbata 10 eta 17, egun osoa**

"Herri jantzia, garaipenaren hazia" for-

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 09-Asteazkena 14**

Lasarte-Oria elkarteak margo eta marrazki ikastaroko ikasleen lanak ikusgai izango dira.

## Villabona

### Antzerkia

**GUREA ANTZOKIA**

**Larunbata 10, 22:00etatik aurrera**

"Sahara, isiltasunaren ahotsak" antzezlanaren eskainiko dute Kukukako kideek Elkartasun astearren baitan.

## Herritarren txokoa

### Galdutako gauzak

Azkorteko Erromeria egunean Ttakun elkarteak kideek Quechua markako txaleko beltza, L tamainakoa aurkituzuten arkupeko bankuetan.

Ttakuneko bulegoan dago jantzia beraz galdu duenak harrera orduan jaso dezake.

### Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

### Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrak animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649

513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

### Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxearen gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

### Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

### Eskuitza

Kukua eta ama

Apirilaren 29an gosaltzen ari ginen bitartean, Mariak esan zigon: "Gaur Secun osabaren urtebetetzea da". Orduan galdetu nion: "Nolatan gogoratu zara?" Eta berak erantzun zigon akordatu zela egun horretan amona Elenaren urtebetetzea zelako. Emazteak eta biok harrিতa gosaltzen jarraitu genuen.

lazko otsailean amona joan zitzaien. Igandero Maria eta nire arrebarik Donostiara joaten zen. Eta bera "litxarrera" ona zenez, Parte Zaharreko txokolategira joateko ohitura zuen. gogoko zuen bere txokolategian espe-roan zegoela, Txokolategiko mahai batetan begiak itxi zituen betirako. Une haren lekuko, Mariarentzat zaila izan zen kolpe hura gainditzea. Orduz geroztik, egunetik egunera poliki-poliki bere mamauk uxatzen ari da.

Gosaldu eta gero Mariak lanera joan behar zuen. Alaba agurtu genuen eta nire jai eguna zenez Andatzara joan nintzen korrika egitera, aspaldiko partez. Gogoko dut mendian lasterka ibiltzea. Leteun, Saldatxur, Olagain eta Juanasoro muinoak atzean utzi nitue-

nen, astiro-astiro Andatzako "anilloa" pasa eta gero, igoeraren une gogorrean nengoela ezagun egiten zitzaidan kantua entzun nuen: *kuku! kuku!* Irri egiten hasi nintzen, "berriri galtzamatzetan harrapatu nau!" Une horretan berriri *kuku! kuku!* entzun nuen eta nire amaren irudia etorri zitzaidan. Irribarretsu zegoen eta keinuka ari zitzaidan. *Kuku! kuku!* Orduan zera pentsatu nuen: "Tradizioa betetzen bada ez dakit aurtengoa diruz nola pasako dudan! Tira, dirurik gabeko urtea izan dezaket, baina amaren oroitzapenik ez zait faltakoa". *Kuku! kuku!... Zorionak ama. ""*

Alex Tetuan

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

# Giza-katearen "entsegu orokorra" maiatzaren 17an Kale Nagusian

Gure Esku Dago lantaldearen azken ekintzak izango dira maiatzaren 16 eta 17an

*Lasarte-Oriako Gure Esku Dago lantaldeak ekainaren 8an Iruñea eta Durango artean egingo den giza-katea baino lehenago, azken ekimenak izango direnak antolatu ditu herrian maiatzaren 16 eta 17an. Ostiralean, maiatzaren 16an, Joseba Tapiaren kontzertua izango da Villa Mirentxun eta 17an berriz, giza-katea egingo da Kale Nagusian 12:00etan hasita. Honetan parte hartzeraz deitzen dituzte dagoeneko izena eman duten herritarrak baita ekainaren 8an parte hartu ezingo dutenei ere. Argazkia aterako da eta Xumelak Kataluniatik ekarritako olibondoa landatuko da amaieran.*

TXINTXARRI

**G**ure Esku Dago ekimenak antolatutako giza-katearen eguna gerturatzeko ari da. Hau dela eta Euskal Herrian zehar osatutako lantaldeak dena prestatzen ari dira ekainaren 8an dena ondo atera dadin.

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago dinamika ere lanean jarraitzen du "euskal herriak izan dezan hitza, gure etorkizuna hemen erabakitzearen alde".

Horretarako, ekainaren 8ko giza-katearen aurretik azken ekitaldi jendetsua antolatuko du maiatzaren 17an.

Programa "erakargarria eta animatua" prestatu dutela diote taldeko kideek eta herritarrak honetan parte hartzeraz gonbidatu nahi dituzte.

## Giza katea Kale Nagusian

Maiatzaren 16an, ostirala, Joseba Tapiaren kontzertua antolatu dute 22:00etan Villa Mirentxun.

Dagoeneko sarrerak salgai daude Jalgin 8 eurotan eta honetara gerturatzeko aukera izango da "bete arte".

Larunbatean, maiatzaren 17an berriz, giza-kate handia osatu nahi da Kale Nagusian eta hitzordua 12:00etan jarri

da Brigitarren komentu aurrean. "Ekainaren 8ko giza-katera apuntatu diren partaide guztiak deitzen ditugu zein bertara joateko aukerarik ez duten herritarrak. Izan ere, ekainaren 8ko entsegu orokorra izango da eta azken herri argazki jendetsua aterako dugu. Mundiala izango da!" adierazi du taldeak.

Mosaiko erraldoia osatu eta argazkia aterako da ondoren.

## Olibondoa

Horretaz gain, Xumela koruak Katalunian zehar egindako bisitatik, Lladó herritik zehazki, opari bat ekarri du.

Gironako Lladó herriko alkateak olibondoa oparitu zion Xumela abesbatzari bi herrien arteko ametsak "bat eta bera" direla adierazteko.

Bidaiatik bueltan, Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak maiatzaren 17rako antolatutako ekitaldian olibondoa landatzeko egun aproposa zela iritzita, proposamena luzatu zion taldeari eta taldeak, "opari handi gisa jaso du".

"Honenbestez, giza-katea eta mosaikoa egin ondoren, ekitaldia amaitzeko olibondoa landatuko dugu Gure Esku Dago taldeko eta Xume-



Apirillean egindako sinadura bilketan jende asko elkartu zen Manuel Lekuonan, guzkiei maiatzaren 17an parte hartzeraz deitzen zaie.

la abesbatzako kideek. Katalunia eta Euskal Herriaren ametsak bat egin eta bi bideak elkar indartzeko ekitaldi sinbolikoa polita izango da".

Olibondoa Askatasunaren eta Dorre parkearen artean landatuko da, "udaleko lorezainek hautatu dute olibondoa erentzat kokaleku egokia".

## Aurreikuspenak gaituta

Lasarte-Oriari, Usurbilekin batera, bi kilometro osatzea egokitu zitzaion Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-katean eta guztira 666 lagun lortzeko erronka zuten bi herrietako lantaldeek.

Aurreikuspenak aise gaituta dira ordea eta bi herrietan dagoeneko ia 1.000 lagunek eman dute izena.

Hala ere, parte hartzaile gehiago onartuko dira "hila-bete amaiera bitartean behintzat".

Beraz, oraindik metroa erosi ez duten herritarrei gonbidapena luzatzen zaie.

Maiatzaren 17an bertan, mahaia jarriko da izena eman eta autobus txartelak erosteko.

"Orain arte jendeak autobusa nahi duen edo ez esan du metroa erosterakoan, eta 17tik aurrera izango da aukera egun oso edo egun erdirako autobus txartelak erosteko".



Ekainaren 8an giza-katera joateko autobus txartelak eskuratu ahal izango dira.



**LASARTE-USURBIL  
INSTITUTUA**

• D.B.H.  
• BATXILERRA

**www.instilasarte.hezkuntza.net**

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA



**Batxilerreko aurrematricula  
maiatzaren 5etik 15era**

Zure  
aukera





**Tel.: 943 372 852 / 943 372 277**